

Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak espezialitateetarako habilitazio bideak kendu dituzte

2010eko urriaren 31tik aurrera ez da habilitazio berririk onartuko eta espezialitatea lortzeko EPE azterketa gaingitu beharko da

Gabonen bezperan jakinarazi du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Lekualdatze Lehiaketak arautzen dituen Errege Dekretuari jarraiki (RD 11364/2010), bertan behera geratzen direla orain arte Maisu/Maistren kidegoan espezialitateak lortzeko baliozkoa zen habilitazioen bidea. Beraz, Errege Dekretua indarrean sartu zen egunetik, hau da, 2010eko urriaren 31z geroztik, ez da habilitazio berririk onartzen.

Hemendik aurrera, beraz, espezialitate berriak lortzeko bide bakarra EPE bidez egingo diren espezialitateetarako deialdi eta azterketa bereziak izango dira (ikus [RD 276/2007 V. titulua](#)). Ez dute balioko beraz, orain arte moduan, ez ikastaroek ezta titulazio berriek ere.

2010eko urriaren 31 aurretik lorturiko titulazio, habilitazio eta espezialitateak bere horretan mantenduko dira eta aurrerantzean egingo diren lekualdatze lehiaketetan ere kotutan hartuko dira, ez ordea, data horretatik aurrera lorturiko titulazioak edota eginiko ikastaroak.

Ordezkoei dagokienez, ordezkoen zerrenda kudeaketan, momentuz behintzat, ez da aldaketarik egon. Beraz, hautagai zaretenok duzuen titulazio, habilitazio, etabarren baitan dagozkizuen zerrendetan parte har dezakezue eta orain arte moduan espezialitateak ematen jarraitu (ikus [1993ko urriaren 14ko aginduaren III. Gehigarria](#)).

Kontuz ordea, zeren behin EPera aurkeztu eta gaingituz gero, oposaketako espezialitatea bakarrik geratuko zaizue, bai zuen momentuko lan-posturako, baita lekualdatze lehiaketetan parte hartzeko ere, ordezko moduan zeundeten zerrendetako aukera guztiak EPEa gaingitu duzuen espezialitatara mugatuz. Aurrez esan bezala, espezialitate berri bat lortu ahal izateko aukerak EPE bidez egingo diren espezialitateetarako deialdi eta azterketa bereziak gaingituzera mugatzen dira. Kontuz beraz eta ongi pentsatu datorren EPEan zein espezialitatetara aurkezkuko zareten, gaingituz gero hori besterik ez baitzazue geratuko.

Bestalde, hau guztia salatuz **ELAk erreklamazioa** aurkeztu diogu Hezkuntza Sailari, honelako erabakiak Euska Herrian eta bertako langileen ordezkaritza kontutan izanik har ditzagun exigituz, EAE barneko lekualdatze lehiaketan ongi bermaturiko habilitazioak kontutan hartzen jarrai dezaten eta, orain arteko araudiari jarraiki, habilitazioa lortu asmoz titulazio edo ikastaroren bat egiten ari direnentzat epe iragankor bat ireki dezaten erabaki honek zuzenean kaltetuenei irtenbideren bat eman asmoz.